



TESTA

Zeure buruaren jabe zara?

Ba al dakizu zer den **jabetzea**? **Bizi-prozesuen** multzoa da. Prozesu horietan, emakume bakoitzak edota emakume talde batek **beren bizimoduan jasaten dituzten zapalkuntzei** (bereizkeria, jazarpena, estualdia aukera ezagatik, esplotazioa, neurrigabeko beldurra...) **aurre egiteko ahala** eskuratzen dute. Halaxe definitzen du Marcela Lagarde antropologa mexikarrak.

Jabetzeak **generoaren arloko harremanak aldatzea** du xede eta, horrela, **gizonen eta emakumeen berdintasuna** sustatzea. Gudan eragina duten **erabakiak hartzearekin**, kezkatzen gaituzten edo interesekoak ditugun gertaeren nondik-norakoetan eragitearekin eta **geure bizimodua geuk gidatzearekin lotuta** dago. Azken batean, **geure buruaren jabe** izatearekin zerikusia dauka. Hona hemen informazio gehiago, gaian sakondu nahi izanez gero.

Harira! Zeure buruaren jabe zara? Ea, ikus dezagun...

1. Maite duzun norbaitek (lagun, ama, aita, neska-laguna, mutil-laguna, ligea...) zuri gehien gustatzen zaizkizun bakeroek ondo ematen ez dizutela esaten dizunean..

- A. Berehala kentzen ditut eta ingurukoei gehiago gustatzen zaien beste zerbait jartzen dut.
- B. Badakit nahi dudan bezala jantzi behar dudala eta zalantzak sartzen zaizkit... Azkenean, aldatu egiten ditut arropak ez zaidalako batere kostatzen eta beharbada esan didanak arrazoa daukalako.
- C. Niri bakero horiek gustatzen zaizkidala erantzuten diot, nire janzkeran zer esanik ez duela.

2. Koadrilako lagun baten urtebetetzea da, pub batean zaude, goizaldeko 04:00ak dira eta badira berrogei minutu mutil bat duzula belarria "berotzen".

- A. Zuzenean diotsot lagunengana noala, ondo pasa dezala gaua.
- B. Jatorra dela, sentitzen dudala esaten diot, baina lagunak alde egin beharra daukala eta nire inguruan bizi denez...
- C. Tinko eusten diot eta itxaron egin dut amaitu arte. Berdin dio: goizaldeko 04:00ak dira eta laster joango gara denok etxera.

3. Lehenengo lan-elkarrizketa duzu; giza baliabideetakoak galdetu dizu ea senargairik duzun, baita etorkizunean haurdun geratzeko asmorik duzun ere. Zein da zure erreakzioa?

- A. Lotsatuta geratu naiz, galdera ez dut gustuko baina elkarrizketako nerbioak direla-eta, ez naiz gauza izan erantzun egokia garaiz pentsatzeko.
- B. Egia esaten diot, besterik gabe; galdera bat baino ez da.
- C. Lasai esaten diot galdera hori ez dela bidezkoa, bikotea edukitzea edo ez edukitzea ez dela garrantzitsua lana egiteko.

4. Jarri egoera honetan, nahiz zuri gertatua ez izan. Familiako bazkari baten ostean, zuk eta lehengusinak mahaia jaso eta harrikoa egin behar duzue. Bitartean, hiru lehengusuak jarrita daude, kafearen zain. Zer egiten duzu?

- A. Berdin dit nork batzen duen mahaia. Ez da ezer kostatzen.
- B. Kexu naiz ez zaidalako bidezkoa iruditzen; ez da bidezkoa beti geuk batu behar izatea mahaia, uste dut txandaka egin beharko genukeela.
- C. Neska izateagatik mahaia jaso behar izatea ez zait gustatzen, baina nahiago dut ezer ez esan, bakearen izenean.

5. Deprimituta edo oso pozik zaudenean, nori kontatzen diozu?

- A. Lagunei (neskak zein mutilak) bikoteari (edukiz gero) eta beharbada, pertsona gehiagori.
- B. Inori ere ez; ez dit ezer ematen besteei kontatzeak.
- C. Bikoteari bakarrik; berarekin dut konfiantzarik handiena eta berak ulertzen nau inork baino hobeto.

6. Gogo itzela duzu igerilekuan ikusten duzun mutilarekin/neskarekin zerbait edukitzeko. Ausarta zara lehenengo pausua emateko?

- A. Lotsa ematen dit, baina gustatzen zaidala jakin dezan ahalegina egin dut.
- B. Ausartu eta zerbait hartzera gonbidatu dut irteeran.
- C. Ezta pentsatu ere! Nahiago lurrak irenstea!

7. Ikaragarri gustatzen zaizun musika-talde batek ezagutzen ez duzun leku batean joko du, nahiz eta bizi zaren lekutik urrun egon ez. Lagunek ez dute joan nahi...

- A. Uf! Beste plan bat egingo dut.
- B. Amorrua ematen dit ez joateak, baina bakar-bakarrik egoteko...
- C. Nagia kendu eta banoa, non den galdetu ondoren. Han norbait ezagut dezaket eta, bakarrik banago, lagunekin geratuko naiz kontzertua amaitu ondoren.

8. Egun zoragarria egiten du bizikletan ibiltzeko baina zure inguruko bidegorria egoera txarrean dago eta errepidetik ibili beharko zenuke. Mutil-lagun batekin joaten zara beste batzuetan baina gaur zereginak ditu eta ezin da zurekin joan.

- A. Pasiera emango dut.
- B. Lagunarekin egiten ditudan ibilbideak bakarrik egiten ahaleginduko naiz.
- C. Ez nago ziur baina, badaezpada, bizikleta eramango dut.

9. Ikasle batek (neska) sexu-erasoa jasan du eta institutuko talde feministak hura gaitzesteko bilkura deitu du.

- A. Joan egingo naiz. Haserrarazi egiten nau neskak segurtasun osoz eta askatasunez kalean ezin ibilia.
- B. Joateko asmotan nabil, talde feministako kideak gertatutakoa azaltzera gelara etorri eta zer-nolako ekintza izango den azaldu ondoren.
- C. Ez dut batere asmorik joateko; ez dut ezagutzen neska eta benetan zer gertatu zen ere ez.

10. Metroan zoazela, zure adineko mutil bat jarri zaizu ondoan, hankak zabalik ditu eta bere espazioa eta zurearen zati bat okupatzen ditu. Albo batera apur bat egin arre, izterrarekin ukitzen dizu. Zer deritzozu?

- A. Normala da; nik leku gehiago behar dut. Ez dit ardura leku apur bat uztea eta ez zait inporta izterrarekin ukitzen banau.
- B. Begiratu egiten diot eta ez dut nire izterra kentzen, ez baitut nahi nire espazioa har dezan.
- C. Ez zait gustatzen baina ez dut ezer egin; ez du merezi, geltoki pare bat baino ez da falta-eta.

PUNTUAZIOA

1. A: 1	B: 2	C: 3
2. A: 3	B: 2	C: 1
3. A: 2	B: 1	C: 3
4. A: 1	B: 3	C: 2
5. A: 3	B: 1	C: 2
6. A: 2	B: 3	C: 1
7. A: 1	B: 2	C: 3
8. A: 1	B: 3	C: 2
9. A: 3	B: 2	C: 1
10. A: 1	B: 3	C: 2

EMAITZA

10 puntutik 15 puntura: Zure jabetze-prozesuak bide luzea dauka oraindik egiteko. Ez larritu; ez da arraroa...Ume garenetik hezten gaituzten kultur patroien ondorioz, gaitasunak eta geure buruaren pertzepzioa galtzen ditugu arian-arian: jar zaitetz dotore, ez zaitetz zikindu, itxi izterrak eta jarri zaitetz neskatila baten modura, ikasketa horiek mutilentzat direla, neskak zaintzaile onak gara onak eta maitekorrek garelako...hau nazka! Epe luzera, eredu horien ondorioz, gainerakoen proiektuak gureen aurretik jartzen ditugu eta, ondorioz, ez dugu geure bizimoduan agintzen. Hala ere, albiste on bat daukagu zuretzat: nahi baduzu, ahal duzu! Zorionez, gauzak aldatzen ari dira eta ekimen asko dauzkagu askatzen gaituztenak. Bilatu itzazu zeure herrian edo hirian eta egin bat ekimen horiekin!

16 puntutik 25 puntura: Muga batzuk dituzu nahiko zenukeen modura jarduteko. Zeure burua hartu behar duzu kontuan -zure premiak, gustuko gauzak, desioak, kezak- eta gutxiago gainerakoen iritzia. Horrela, lotura horietatik askatu eta autonomoago eta libreago sentituko zara, zeure buruaren jabe izateko gaitasun eta energia handiagoarekin. Animo! Eraldaketa zure esku dago!

26 puntutik 30 puntura: Zeure bizitzako proiektuak gidatzea gustatzen zaizu. Konfiantza duzu zeure buruarengan eta zure ingurukoek uste horiek indartzen dizkizute eta on egiten dizute. Zuri bost axola besteen iritzia eta ez duzu nahi neskenak direla uste diren roletan eta estereotipoetan lerrokatzerik. Zorionak! Jarraitu horrela; zure jabetzea osasuntsu dago!

